




AZALPEKO GORDAILU BENOSOA

**ONKO-HEMATOLOGIAKO
DONOSTIA INSTITUTUA**
DONOSTIA OSPITALEA

D O N O S T I A O S P I T A L E A

IDOH ONKO-HEMATOLOGIAKO
DONOSTIA INSTITUTUA
INSTITUTO DONOSTIA
DE ONCO-HEMATOLOGIA
H O S P I T A L D O N O S T I A

AZALPEKO GORDAILU BENOSOA AURKIBIDEA

Zer da azalpeko gordailu benosoa? 3

Zertarako erabiltzen da? 4

Nola jartzen da? 5

Prozedura kirurgikoa 6

Zeintzuk dira bere abantailak? 7

Zein konplikazio eduki ditzake? 7

Zeintzuk dira gordailuaren zainketak? 7

Zer dira gordailuaren garbiketa eta zigilatzea? 8


Zein bizimodu eraman dezaket gordailua jarri ondoren? 8

Noiz kentzen da? 8

ZER DA AZALPEKO GORDAILU BENOSOA?

Gailu metaliko txikia da. Silikonazko ganbera bat du, ziztatu ahal izateko; eta konektatuta dago tamaina handiko zain batera azalaren azpitik doan kateter (tutu txiki bat) batekin.

Gehienetan toraxean jartzen da, baina beste gorputz-atal batzuetan jar daiteke: besoan edo iztarteetan.



ZERTARAKO ERABILTZEN DA?

Medikamenduak jartzeko, odol-transfusioak egiteko eta odol-laginak ateratzeko.

EZIN DA ERABILI: kontrasteak (proba erradiologiko batzuetan erabilitako medikazioa) **jartzeko** –apurtu egin daitekeelako.



NOLA JARTZEN DA?


Kontsultan esango dizute jarri behar zaizun ala ez, tratamendu motaren, iraupenaren eta zainen egoeraren arabera.

Emandako informazio guztia jaso eta ulertu ondoren, gailua jartzea nahi baduzu, **baimen informatua** sinatu beharko duzu. Geuk gestionatuko dugu hori zuzenean Kirurgiako Zerbitzuarekin.

Egun batzuk pasatu ondoren telefonoz deituko dizute hitzordua emateko. Interbentzioa oso sinplea denez, ez duzu ospitalean ingresatuta gelditu behar izango.

Interbentzioaren egunean **gordailua jarri baino hiru ordu lehenagotik baraurik** (ezer jan eta edan gabe) egon behar duzu.

Esandako egunean eta orduan Donostia Ospitaleko **Arantzazu eraikineko sarrera nagusitik** sartu behar duzu, eta **Onarpera joan behar duzu** (sarrerako hall-aren ezker aldean) zure datuak ematera. Bertatik lagunduko dizute Eguneko Ospitale Kirurgikora, interbentzioa egitera.



PROZEDURA KIRURGIKOA

Operazio-gelan egiten da. Kirurgialariak, anestesia lokala jarri ondoren, ebaki txiki bat egingo dizu, gordailua sartu eta kateterra zain bateraino eramateko. Gero puntu batzuk emango dizkizu larruazalean eta zauria babestuko du apositu batekin. Oso interbentzio sinplea da eta 30 minutu inguru irauten du.

Gailua ondo ezarri dela egiaztatzeko, toraxeko erradiografia bat egingo dizute.

Dena ondo badago, etxera joango zara segituan.

Operatutako aldea pixka bat hazita egongo da eta minduta. Gordailua prest egongo da, dagoeneko, erabiltzeko.

Gordailua kokatuta dagoen aldean, baliteke koxkor txiki bat nabaritzea.

Suturako puntuak 8 edo 10 egun igaro ondoren kendu behar dira. Zeure osasun-zentroan kenduko dizkizute, edo Eguneko Ospitale Onkologikora tratamendua hartzera etorri behar baduzu, bertan ere kendu daitezke.

6



*Gordailua jarrita dagoen aldea
(koxkorra antzematen da)*

*Irudi honetan ikus daiteke gordailua nola
gelditzen den toraxean
Gailua ez da ikusten azalak estaltzen duelako*

ZEINTZUK DIRA BERE ABANTAILAK?

Luzez egon daiteke jarrita, are urteak ere.

Zainetan ez da behin eta berriro ziztatu behar, 3.000 erabilera baino gehiago jasaten ditu eta.

Zainketa gutxi –baina espezifikoak (erizainarenak)– behar ditu.

ZEIN KONPLIKAZIO EDUKI DITZAKE?

Gordailua segurua da, nahiz eta batzuetan gerta daitekeen konplikazioen bat, hala nola, infekzioa edo tronbosia.

Horregatik garrantzitsua da min, molestia, inflamazio edo sentsazio arrotzik nabaritzuz gero, mediku edo erizainari esatea.


Gordailuak mantentze teknikoak behar duenez, erizaina adi egongo da edozein gertaera konpontzeko.

ZEINTZUK DIRA GORDAILUAREN ZAINKETAK?

Zeuk ezin duzu gordailua manipulatu, azalaren azpian dago eta. **Erizaina arduratuko da** zainketa eta mantentzeaz, berak daki eta nola egin gailuaren mantentze teknikoak.

Konprobatuko du iragazkorra dela (odola ateratzen eta medikazioa sartzen uzten duela), garbituko du serumez eta zigilatuko du heparinaz.

Hematologiako Zerbitzuak kontrolatzen bazaitu, aldizka odol-analisia egingo dizute. Hematologiako erizainak azalduko dizu prozedura.



Ezarritako gordailua, konektaturik luzagarria duen orratz bati. Ziztada-tokia babesturik dago antiseptikoan bustitako gaza batez.

ZER DIRA GORDAILUAREN GARBIKETA ETA ZIGILATZEA?

Gordailuak funtzionatzeko garrantzitsua da aldizka garbitu eta zigilatzea. Erabili ondoren –medikazioa emandakoan– garbitu behar da serum fisiologikoz eta heparinako soluzio batez. **Heparina** farmako bat da, erabiltzen dena odola kateterraren barruan ez koagulatzeke, gailua trabatuta gelditu ez dadin.

Medikaziorik hartu gabeko denboraldietan ere **garbitu eta zigilatu behar da: gutxienez 6 – 8 astez behin**. Horri esker hobeto funtzionatuko du eta gehiago iraungo du –konplikazioak saihestuz.

Garbiketa eta zigilatzea **modu anbulatorioan** egin daitezke zeure osasun-zentroan edo Egunekeo Ospitale Onkologikoan.

Garrantzizkoa da **“Larruazalpeko gordailuren mantentze-kartila”** beti zurekin eramatea, intzidentziak eta zigilatzeak bertan apuntatzeko.

ZEIN BIZIMODU ERAMAN DEZAKET GORDAILUA JARRITA?

Suturako puntuak kendu bitartean, ezin duzu mugimendu zakarrik egin. Puntuak kendu ondoren, **bizimodu erabat normala egin dezakezu**. Ariketa fisikoa egin dezakezu, baina kontuan izan **kirol batzuetan gain-esfortzuak egiten direla eta kolpeak hartzen direla** (zonaldean lesioak eduki daitezke). Beraz saihestu egin behar dituzu ondokoak: ehiza, arku-tiroa, pisuak, errugbiak...

Araketa medikorik egin behar baduzu (erresonantzia, eskanerra), nahiz eta arriskurik egon ez, esan egin behar duzu.

Oharra: metalikoa izan arren, gordailuak ez du soinurik ateratzen segurtasun-uztaietatik pasatzean (aireportuak, polizia...).

NOIZ KENTZEN DA GORDAILUA?

Konplikaziorik sortzen ez bada, tratamendu osoa bukatu bitartean edukiko duzu. Zuhurtziarengatik, gordailua edukitzen da jarrita tratamendu bukatu eta denboraldi batez oraindik.

Medikuak esan egingo dizu noiz den mementorik onena kentzeko.

Gailua kendu egingo dizute jarri zaizun modu bertsuan: operazio-gelan anestesia lokalarekin.